

## **Aurrera jarraitzeko**

*Hemen, 1988-03-18: 8.*

Martxan jarri den kanpaina berri hau, "Bateginik" izeneko hau, ona delakoan nago, euskararen alde egiten den lan guztia ona bait da. Eta ona da batez ere, kasu honetan bezala, hiru partiduk elkar egin dutelako ekimen honi baiezkoa eman eta hizkuntzaren aldeko kanpaina horri laguntzeko.

Ni neu hor barruan aurkitzen naiz Eusko Alkartasunaren izenean lanean, eta ikastolak, hain beste lan egin duten ikastolak daude asmo horren ardatz bezala.

Nik uste dut garrantzi haundikoa dela martxan jarri dugun kanpaina hau eta pentsatzen dut inolako arazorik gabe aurrera jarraituko duela. Bi hilabeteko epea jarri dugu aurretik, eta denbora horretan lan haundia egingo dugulakoan nago.

Berrehun milioi pezeta eta seirehun mila sinadura jasotzea ez da txantxetako helburua. Baina jomugak gora jarri behar dira betik, eta nik uste dut, horretara iristen ez bagara ere, ez garela urruti ibiliko. Ez gara atzean geratuko asmo honetan.